

**UMEA EUSKARA ETA GAZTELERA ALDI BEREAN
GARATZEN**

Hizkuntza bi aldi berean entzun eta garatzen dituen umeak hizkuntza biak bereizita garatuko ote ditu? Ez ote da kaltegarria umearentzat txiki-txikitatik hizkuntza bi entzutea, eta biak aldi berean garatu behar izatea? Ez ote litzateke hobe lehenengo hizkuntzetako bat garatzea, eta bigarrena gero ikastea, lehenengoa ondo menderatzerakoan? Euskara eta gaztelera aldi berean garatzen dituen umeak ez ote ditu hizkuntza biak nahasiko? Gai ote da umea hizkuntza biak egokitasunez bereizteko? Ez ote da umearentzat eta hizkuntzentzat kaltegarri izango hizkuntza bi aldi berean garatzea? Ez ote ditu hizkuntzak nahasiko? Ez ote da haurra nahasiko? Ez ote dira hizkuntzak hondatuko?

Halakoak eta antzeko galderak azaltzen zaizkigu gizasemei ume txikiak gure hizkuntza ikasten edo garatzen ari direla ikusten ditugunean. Antzeko galderak egiten dizkiogu geure buruari geure seme-alaba txiki-txikiak direnean, zelan hazi erabaki behar dugunean, edo lagun baten seme-alabari erdipurdiko esaldiren bat entzun diogunean.

Idazki honen bidez hizkuntza-garapen elebidunaren inguruan izan daitezkeen kezkei argitasuna eman nahiko nieke, ikerketetan ikusi eta ikasi duguna erabilia. Horretarako, jarraian kontu honek izan dezakeen marko zabala zehazten hasiko naiz, eta, ondoren, ikerketetan ikusitakoa laburbiltzen ahaleginduko naiz